



# behe-lainoak

IBAN GARRO



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)



# GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

IBAN GARRO

# behe-lainoak

URTEAK DIRA, hamarkadak, Behe Nafarroako Urepelen norbaitek “marka” egunaren bezperan elizaren teilatuan ikurrina paratu zuela, udaberriko ortzirale gau batez.

Ofizialek, ofizialki ezkutuan eduki nahi zen zerbait agerian nola, ez zioten besta egun handiari hasierarik eman ikurrinaren kentzea behartu zuten arte.

Aspaldiko kontuak dira... edo ez?

Goi Nafarroako Iruñean, San Fermin bezperan, horrelako zerbait pasatu zen duela ez hainbertze. Txupinazoa gibeleratu zen arrantzale talde batek jarritako ikurrina —horiek ere teilatutik— kentzea behartu zuten arte.

Nafarroaren gorabehera horiek... baina, gu ez gara haienak, ezta?

“... Gure aitamen aitamak horrelakoak izan dira, beharrenak, behe lainoarenak, lurpeko erreka, heriora doan ura, atzadura, historiarik ez duen jendea. Baina, eta haxe da esan nahi nuena, halakoena da historia guztia”.

Gure arbasoen kronika  
JOSEBA SARRIONAINDIA

## Sinopsia

2021KO UDABERRIKO edozein ortziraletan gaua da herrian. Behe-lainoak hartu du ibarra.

Parranda giroan, gauaren erroak hala eramanda, bi gazte elizaren puntara goitu dira, ezkilaren ondora

Teilatuan jarriak bi ahots honetaz eta hartaz solasean, ilunean, behe-lainotik ihesi euren marka propioaren bila.

Holaxe datoz eta doaz hitzak eta hitzen artekoak: idorrak lurraren pisuaz, bustiak urak eramaten, noraezean olerkiaren haizean. Atzokoak, gaurkoak, biharkoak.

Eta isiltasunak.

Inguruan Kintoa, Ahadi mendia, Imilitz erreka, etxaldeak, kabalak, ohiturak, dudak, gudak. Eta euli behatz-luzea joan-etorrian. Maiz, azalean pausatua, eskuak igurtzi eta igurtzi.

Ordu ttikiak, begi ttikiak, egia handituak.

## Teilatuan

- Goikoak eta behettikoak. Ikusi izarrak; argia mila puska egitten delarikan da gaua. Azpian, behe lainoak Imilitz uraren harana hartua, bertze behin.
- Badaki untsa zertan ari den: hartzen, estaltzen, estalirikoaren forma hartzen.
- Itxeek ere estaltzen dutenaren forma: bordak, jauregiak, elizak...
- Kabalak, jauntxoak, jinkoak. Bainan gu ez gitu behe lanoak kukutuko, ezta?
- Orain behintzat, ez. Orain bi katu gara, elizaren teilatuan, bekatu egitten.
- Bi gatu begi gorri, puntaren puntan, bekatu egiten. Zerbait finitzen da teilatian. Eta zerbait hasi. Muga bat gaingitu bezala. Edo ez?
- Izarrakeri begira normala da zalantza. Argitasuna zatittua, mila puskatan. Izarrak ikusteko behe-lainotik ateri behar.
- Aditu ezkil hotsak dilin-dalan, dilin-dalan. Azantzak ahotsa estaltzen du behe lainoak ibarra bezala.
- Ahots isilduak... ez da batere txarra galderak egittea.
- Izarrak eta zalantzak. Guzia eta deus ez.
- Haur ginela, teilatura goitzen ginen maiz, izerdi tantak dilindan, izarrak behatzekin harrautzera.
- Izarrak ginituen desio, bainan desiratzearekin konforme ginen. Erhia altxatzearekin. Behatzearekin.
- Ttikitan, deus da guzia. Haunditan, guzia, deus ez. Bertsoan eta musean ere ttikiak eta haundiak.
- Eta ezpatak eta urreak.
- Itxe barren guzitan bezala, behe lainoak eta behe lainoak. Eta gu azpian, tapatuak. Gu, eta gure beldurrak.
- Folklorismoak ere estaltzen duenaren forma du. Horregatik gira teilatian, ezta? Ez girelako haienak.

[...]

KINTOAN pagoen hostoak  
honetaz eta hartaz ari dira,  
beldurrari mintzatu  
behar zaiola jakitun

Fresko dator udaberria  
belarrarekin goiti,  
sagarra jan ondorengo  
ahoa dakar

Soro gainak bazka garbiak  
gurutzatzen dira bideak  
bidaideak

Gurutzatzen dira goseak  
gogoak, behe-lainoak  
bibote eta bekain xuriak  
belagietan, begietan

Bziiiii bziiiiii inguruan  
euli buruarin tantiruria  
orain harat, orain honat  
orain azalean pausatua  
eskuak igurtzi eta igurtzi

Baina barka, agudoegi ari natzaizu  
ez nazazu gaizki har, ni nauzu  
beldurraz mintzo natorkizuna



( bziiii bziiii nirea zara nirea zara nirea  
nirea zara nirea zara bziiii bziiii  
bziiii bziiii zara nirea zara nirea zara direna  
bziiii bziiii nirea nirea nirea bziiii bziiii )

KINTOAN pagoen hostoak  
honetaz eta hartaz ari dira  
baina ni nauzu, erran bezala,  
beldurraz mintzo natorkizuna

Denborak ez du adinik  
maitagarria denean Joana.  
Atea ixten dut etxean sartzean  
jarraitzen didanarekiko fidagaitz  
edo maite dudanari joaten ez uzteko

Baina ni naiz , bakarrik ni  
atearen bi aldeetan dagoena  
ez dena ez sartzen  
ez ateratzen  
ez duena ez sartzen  
ez ateratzen uzten

Ni, eta nire beldurra  
aitzinean, aldeetan, gibelean  
polita deritzozu halako konpainia  
halako bakardadean  
daramadanak nakar noalarik

Belarra haztean  
berdinetik berdinerara doan berdea da.  
Berdina, berdea baino gehiago

“horrela nahi gituzte, ezta?”

Ez ba, ez , ez eta ez!  
Gaiztoa da beharra, behartsu behar gaitu

badakit

eta badakit beldurrak berak ireki dizkidalako begiak, kuraiaz begiratu ahal izan  
diodanean

BILA ZAITUT  
non dagoen nire begirada  
hor bazina

Begiez bila  
soinean daramazuna  
zure ispilu arrazonaletik at

Bidean behera  
Garazirantz behera  
edo beherago  
galderarik ezean bidaide nauzu  
edo egin ezinean

Nolakoak diren begirada hauek,  
nola harrapatu  
beti aitzinean daroaguna?  
Harrapatu nahian, nahiak harrapatua

Eutsi, ez etsi, hurbil naukazu  
bilatzen dut non dagoen  
nire begirada  
nire denbora

adituaz  
bihar mugituko dituela  
haizeak adarretakoak  
biluziaren ederrerrantz

ederrak biluzten duen bezala  
nire begirada  
harrapatzean baino bila  
zaitudanean

IHINTZAK maite du  
belar berdea,  
ihintzak maite du  
belar berdeak goiti  
dakarren gogoa

Maite du muxukatzea  
murtxikatzea  
xehe-xehe maitatzea.  
Nork ez du maite  
maitatua izatea?

“Hau al da erran nahi dautazuna,  
bertzearen goseak asetzen gituela?”

Onartua dugu, bai,  
baina ez gaitezen lerrotu  
ez larritu  
hor nonbait daramagu  
goiti doan belarraren gogoa

Lurraz eta zeruaz ari natzaizu:  
badakidala badakizun hartaz,  
ez garenean gaituenaz,  
masailetik irristan doan  
tanta bakoitza elkarri xukatu  
behar izan diogun hartaz,

ihintzak belarra maite duen moduaren bila

eta bila eta bila eta bila...

GOGOAK berea du ahoa  
ahoa gogoa  
beroa  
eroa  
agertu nahiak daroa

gogoak berea du beroa  
geroa  
eroa ahoa  
agertu nahian goiti doa

“Maitatzeko moldeak eta moldeak direlako. Ikus itzazu kabalak pentzean:  
goseari ausikika gose direlarik, goseari ausikika ase direlarik”

BAINA errespetuaz ari  
natzaizunean  
ez naiz ba  
maiteegi nauenak  
maitatzen dakien  
modukoa.  
Halako beroa  
goxotasunetik baino  
gaixotasunetik mintzo da

BI KATU gara teilatuan  
izarren argiari oraintxe pasatuko  
balitz bezala begira.  
Haizeari putz egitea miragarria da  
talaia horretatik  
konstelazioak kulunkatzeraino  
sehaska beltz amaigabean

Urteak dira abiatu zirela  
bai, eta zer,  
arnasarekin ere mugitu badaitezke?  
Platerkada bat esne edo  
izarren salda,  
iraganari katu begiez begiratzea  
bezalakoa.  
Ez handirik, ez ttikirik, ez urrerik,  
ez ezpatarik.  
Katebegirik ere ez.  
Eta kontent, deusek ez duelako  
inporta talaia horretatik.  
Hori beti.

Proba ezazu zuk ere  
gauak galtzen zaituen horietan  
kendu pausoari hotsa  
kendu bizitzari pisua  
azazkalak atera.  
Teilatuan aurkituko duzu laster  
zure burua.  
Izarrak ilunera begiratzen  
baldin badaki  
zer inporta du argia hainbat urte  
lehenago abiatu izana?

Konplize zaitut honaino iritsi zarenez.  
Bi katu gara teilatuan  
egiazko pausalekuan  
haizea etorri bezala doan espaziontzian



IX.

“Atzokoa ere pasatu da. Biok, bakarrik biok iskiriaturko dugu gure biharkoa”

EZ NAIZ LOGALE  
 baina ttiki ditut begiak  
 zehaztasun ttikiei beha  
 berzari beha  
 esnearen mugimenduari

Bira bakoitzak duen  
 zentzuaz ari natzaizu,  
 hurrengo aitzinekoaren  
 segida dela  
 baina nortasun desberdinez

Tradizioen jarraipenez  
 mintzo naiz ene baitan,  
 uste dut bira bakoitzarekin  
 zerikusia duela.  
 Itzuli egiten da bira bakoitzean,  
 bizimolde bat itzulikatuz

Ulertu behar nauenak  
 ulertzen nau  
 ez gaituela egin beharrak  
 beharrezko egiten.  
 Alabaren margoei begira  
 dakit hori

Ez naiz logale  
 baina ttiki ditut begiak  
 gatz uraren birari so:  
 xuriagoa da munduarena baino.  
 Eta sartu dituzu behatzak  
 zemorenan

Esku xuriak, esku maskarak dio  
 xarmant laztandua  
 xarmant doala ahora,  
 xarmantasunean abiatutakoa  
 denborak gogortuko duela gerora, bai,  
 baina bihozbera galdu gabe

Behatz xuria beratza da

eta bihotza du.  
Laztanten daki amaxik bezala.  
Itzultzen naiz bira bakoitzean  
bizimolde bat itzulikatuz

Arren, ipin iezadazu ahoan  
zure mundu xarmant hori  
zure mundu xuri hori  
begiak ttiki izan arren  
ahoa behar hainbat ireki dezaket  
lo ditudan garaietarantz

“Begi ttikiak gauarenak dira, parrandarenak, gorriak, egarrittuak. Ilunari begiratzeko gai direnak dira”

LAGUNEN zapata hotsak urrutitik  
sumatzen nituen gelara noa.  
Aulki ttikiak, arbela handia  
leihoaren bertze aldean, espazioa

itzuli naiz, bazatozte

Arkatzari punta ateratzea  
iraultzaren hasiera zen hemen  
papertxoak botatzea, jarraitzea  
buruarekin erregelak puskatzea, ailegatzea

Matematikaren gauaren lerian,  
multzoak, azpimultzoak  
egiak, egia osoak, egiak ez bertzerik  
begi bat itxi, mihia kanpora  
eta irriak eta orriak

Gortinen atzean ezkontzen ginen  
eskailerak ipurdika jaitsi  
nola jakin etorkizuna idazten ari ginela

itzuli naiz, bazatozte

Lagunen zapata hotsak urrutikoak dira  
baina beti bazatozte  
eta itzuli naiz gela honetara  
alabaren margoen planetara

Non aurkituko dituzue nire begirada galduak

KINTOAN pago bazara  
zaude, zaude  
haizeak eramanak  
zure sustraiak balitu.  
Gelditu behar al da  
sentituz laztantzeko?  
Gelditu, laztandua sentitzeko

Kintoan pago bazara  
zaude, zaude  
azalean duzu nire eskua  
gogorretik bigunera  
doan horrek.  
Zaila zait non hasten zaren  
non akabatzen zaizun  
asmatzea,  
hosto bakoitzera zure zer doan,  
zein adarrek kontu dezakeen  
gaizki egitearen sentsazio hau

Kintoan pago bazara  
zaude, zaude  
zenbat urte izanen ditut  
beharrezko  
—gerri bueltan zenbat aro—  
sostengatzen nauena sentitzeko?

ABISUA JASOTZEAN urduri ari dira  
 zer datorren jakitun  
 ele bakarreko hizkuntzan ari dira  
 zer datorren jakitun  
 taldearen babesean hauspotuago  
 indartsuago  
 joarea zintzilik ari dira  
 ezkila zintzilik ari dira  
 ez dute maite inork azazkalak moztea  
 ez dute maite murtxikatu ezina jatea  
 zaporea maite dute  
 lurraren zukua eta usaina,  
 belarrarena eta ihintzarena  
 belarrarena eta erroarena.  
 Etengabe ari dira.  
 Beren ahotik nor dabilen badakit  
 sakonaren sakona  
 arbasoaren arbasoa  
 oinarrizkoak hitz bakarra  
 nahikoa du guzia errateko  
 hotsak baino ahotsak axola baitu  
 manerak  
 bizitza sinplea denean gertatzen da.  
 Hara, begira iezaiezu minutu batez  
 Geldi-geldi aurpegira  
 —zaila da hagitz—  
 ulertuko duzu zertaz ari naizen:  
 bide errazena maite dutela  
 Imilitz urak bezala.  
 Zorionak, hitz bakarrekoak, ez duela nekerik

Belar zati bakoitzean mundua dastatzen ari dira. Ardi dira

“hiru margo ditugu paisaian. Berdea belarrarena, naturarena, edertasun umilarena. Xuria esnearena, ardiarena, izerdiarena. Zer dioten garenaz bertzelakoak dira, hitz merkeak, garbitu gabeak, laiotzak. Ez, beraz, taupadarenak. Horixe hirugarrena: gure gorria”



HITZAK  
 erraietatik goiti  
 zintzurrean arrastaka  
 ahora  
 ahoan  
 hainbertze desiratutakoen ttuaz  
 zipriztinduak  
 erotismoak erotik gehiago duela  
 arrazoiak arratik gehiago duenean

Hitzak  
 arratsaldeko hiru eta erdietan  
 Mentako terrazan edo Cafe La Habanan  
 hainbertze maitatutakoen haserreak  
 denborarekin  
 denboran bidaiatzeko  
 arrazoi bilakatuak

Hitzak  
 maitasuna eta denbora  
 behar dituelako  
 ahots propioa izan dezan.  
 Egia kanpoko inoren inolako  
 eraginik gabe  
 adierazten ikas dezan

Halakoetan hitz egin baino  
 hitzak eginen dituzu.  
 Hitzak eraiki katedralen  
 moduan

zure  
           aldez  
 zure  
           moldez  
 zure  
           hatsez  
 zure  
           ahotsez

ETA isiltasunak

## Teilatuan

[...]

- Folklorismoak ere estaltzen duenaren forma du. Horregatik gira teiltarian, ezta? Ez girelako haienak.
- Kosta egin zaigu honaino ailegatzea. Kosta egin zaigu murrua gainditzea. Izerdia bota dugu. Izerditzea biluzteko modu bat da, lainoak uxatzekoa.
- Begirada garbitzekoa.
- Agertzekoa. Izattekoa.
- Xoria hemen zen gu jitean. Xoria ez da gelditzen bainan ez du izerditzen. Pisu gutti darama soinean, pisu gutti airean. Biluzik bizi da. Bizibiluzia da. Eta eroa.
- Pisu gehiago gauzek lurrean, izerdia kopetan eta zapia sakelean behar da belarra mozteko. Soroak egitteko.
- Karga eta sobera arropa soinean lurtarrok. Arropak ere estaltzen duenaren forma du behe-lainoak bezala. Eroak denok ere.
- Zorionsuago bizi dire soketan, pintzetatik zintzilik, haizeak astinduak, hegaka harat-honat.
- Hedatuak izerditzeko. Harrotuak pisua kentzeko. Arropak ere biluzten dira. Biluztearen beharra dute. Ez, ez gira hain desberdinak.
- Begira murruari. Aisa da mundua marratzea. Bakotxak norberaren arrazoiak. Altuera honetatik arrazoiak txoriaren hegadarekin zerikusi haundiagoa ote duen harriaren gogorrarekin baino.
- Tradizio pisuak. Harriak harria. Arrak arrazoina. Betikoak betirako. Eta bakotxak bere beldurrak. Murru batzuk ikus ezinak ditugu.
- Garai arraroak bizi dittugu. Ahoak ere tapatuak muxukoekin.
- Muxukoa. Hitz polita da.
- Hitz politez isildu ohi dizkigute ahoak. Ahotsak.
- Garai eroak bizi ditugu, bai, bainan eroak gira gu ere. Proiektu eroak ditugulako gira teiltarian, eta ez girelako haienak.
- Eta begirada gorri. Horrek salbatuko gattu.

[...]

( bziiii bziiii nirea zara nirea zara nirea  
bziiii bziiii zirena zara nirea raza ridena bziiii bziiii  
ridena ra zadinera na nirea za ninera bziiii bziiii  
zidera ninera rirena zinerarideranirezararenidera bziiii bziiii )

HARRAMAZKA murruan goiti,  
hemendik al da?  
Ez dago bertze biderik.  
Norena da estalki hori?

Biltzen gaituena mihisea da  
zetazkoa  
mihia darabilkiogu laztan  
ez baita manera dotoreagorik  
hitz bustiak abiatzeko

( Nirea zara, nirea zara ) dio berorrek  
lehen pertsonaren indarrean  
desitxuraz itsu  
handinahiak mozkortua  
hitzek begiak irekiko balituzte  
aho bidean  
gaiztuak maiztuak lodituak

Nork libratu ote ditu  
baimenik gabe azalak ziztatzen?

Ai ene, euskaldun gaixoak  
airezkoak, hitzaren morroi  
nondik den ezin asmatu.  
Baina lasai, polita,  
ederrenak ere badu garai bat  
bakarra  
sasiak minberatu arterainokoa

Azkenerako sasiak harrapatzen baitu  
eder oro, ero oro.  
Zenbat eta zenbat eta zenbat azal-zauritu.  
Baina, ez al da ederragoa  
azala zauritua zuritua baino?

Orbainaren adio erran ezinean  
zeharkatzen gaituen garratzak  
badakizu,  
berotik duela erotik hainbertze.

Zenbat eta zenbat eta zenbat eder  
murruan goiti teilaturantz.  
Murruan harriak gara,  
harriak harria dakar  
gogorrak gogorra  
baina bihotza daramagu taupaka

denbora gorrien egarri

EURIAK ur eria dakar  
apurtua  
epela

Baina lasai, polita,  
lur —gorputz— umelari bero usaina dario  
azpian libratzen ari dira atzoko, gaurko eta biharko borroka guziak

EZ DIZUT mihia ahoan  
sartu nahi  
—abiatua nauzu, lizundua—  
ez bada nirekiko harridurak  
zabaldua

Aunitz dut nire kontra  
gaitasun galduak narama  
ezezkora  
guttienez zalantzara

Baina jakin  
—ezagutuko nauzu pixkanaka—  
ez didala goiz edo aho argiak  
bizipoza pizten  
pozaren izuak baizik

Jakin  
maite zaitudala  
entendimendutik at bila  
zaitudanean

eta bila eta bila eta bila

zalantzak didalako goiza —edo argia— pizten



ATREBENTZIAK luzea du dena  
hanka, besoa, behatza  
iristen daki  
ez da isiltasuna haren ahoa  
ez du leku bakarrean irauten

dena luzea du urrutikoari heltzeko  
hurbilekoa urruntzeko  
eta lur idorraren egarria.  
Solastatzen zaigu loratutakoez  
behatz luzeez biltzen, ximeltzen  
gaituen bitartean

dena luzea du eta heltzen gaitu  
adarretik jasotako sagarraren ohituraz

sagarra indarra beharra bakarra  
arrak barrenean  
barrenak jaten nahi gaitu  
nahiak gaitu, barka atrebentzia

“hauxe ere arraren arrazoina.. baina gu ez gira haienak, ezta?”

EGUNAK BETETZEN  
eta husten  
ditugu  
plateren moduan,  
ari garelako  
arian garelako

Arikerian,  
ogi papurrak  
erortzen zaizkigu  
ahotik.  
Hitz papurtuak  
asfaltoaren gainera  
gaurkoak, atzokoak,  
errestoak  
edo memoriaren  
arrastoak

Gauak maiteago ditut  
isiltasunean  
zeruari begira,  
izarrei,  
egunak utzitako  
ogi papurrei

ALDIZ, kazkabar gauak ilunagoak dira, izar puskek direlako lurrera erortzen direnak. Ez, ez gara hain handiak. Ipuinak salbatuko du mundua, inork ez duena ezin inork desiratu. Hauxe da gauaren sekretua. Holaxe, ohatzera nekatuak ailegatzean lanparak biztuko ditugu, eta gerra guziak itzali.

Hori batzuetan da,

BERTZEETAN EZ. Bertzeetan abiatua nauzu, lizundua...

ilunabarrak iluntzen

zergatik ezkututzen dizkidazu  
paisaiak  
koloreak eta formak,  
lainoa mendi magalean baino  
begietan badaramat?  
Ikusten ez dudan zein xokotan  
dituzu  
bizitzaren alderdi biziak?  
Guziak desagertzen dira  
guziak ez  
beldurrak ispiluan daude  
ordu ttikietan orduak txikitzen

Begietako magalak malkartsuak  
zaizkit

Neroni iluntzen naizenean  
desberdina da.  
Bertzeon begiak ispilu  
logelan sartu eta lanpara  
itzaltzen dut  
begiak itxi  
ni neu gau izan arte.  
Bertzeon koloreak eta formak  
bere baitara ezkututzen  
dituen  
lapur hori izan arte

( bziiii bziiii masque republique frontière obligatoire  
comunidad foral de uno cincuenta por favor bziiii bziiii  
para mí para moi pour moi para mí moi pour bziiii bziiii  
la france l'espagne molac loi ridena zadinera ranizera da bziiii bziiii )

( Nirea zara, nirea zara ) dio berorrek  
lehen pertsonaren indarrean  
desitxuraz itsu  
handinahiak mozkortua

Ba, jakin beharko luke  
bziiii bziiii eskuak igurtzi eta igurtzi  
dabilen euli madarikatu horrek,  
nahiak ez duela inor haundi eginen

BARNERA NOA  
zure begi urdinean  
argazki zaharretarantz  
harrizko bideak  
zeuden garaietara

“Xokolateria” dio kartel  
burdin herdoilak edertuak.  
Bide ertzean kantari denak  
xoria dela dirudi

Melodia bat bide izkinan,  
pertsonek baino  
bizitako istorioak gara,  
baldintza bakarra inork  
kontatuak izatea

Xoriak hala egiten du egunero  
bide ertzetik, bertzeak bide.

“behar dugun lekian gira, ez dut dudarik”

Ireki diot esku ahurra  
ogi papurrak eskaintzeko.  
Hitz apurrak mende oso bat  
garraia dezake,  
izerdiak ibilitakoa hainbertze,  
eta non gaude gu inon ez bada  
istorio ederrak kontatu ezean

Horretan ari zara  
jarrai ezazu  
zoaz, zatoz begi urdin  
koloreak koloreago dira  
argazki zaharretan.  
Ez naiz itzuliko berdin

Pertsonek pertsonago dira  
entzunak direnean.  
Ondoan jarrita adi nauzu  
mendekurik gabe naramazun



kontra-erranean.

Murruan  
gogorak gogorra dakar.  
Holaxe nentorren  
zure etxeko atea  
zabaldu didazunean

Zure hitzetan artilea duzu  
artilea nauzu, udaberritua.  
Banoa zure begi urdinean barrena  
argazki zaharretara

Olerkia dario zure hatsari  
badakizu,  
olerkiaren oinazeak  
haizetik gehiago du oinetik baino

Begira xoriaren hegada eroa  
badakit geroaz ari zatzaizkidala.  
Holaxe noa hegan zure hitzetan  
holaxe naramazu  
inoiz inork bizitutako ederrak  
ahalbideratu didan esperantzarantz

BADAKIZU,  
xokolateak, beroan urtzean, istorio goxoak ditu kontatzeko... kantatzeko

eta ez naiz itzuliko berdin

“Ipuinak salbatuko gitu, bai. Holaxe, haizeak eremana atxemanen nuzu gauez teilatietan, enegana hegaldaka -eta bakarrik hegaldaka- hel zaitezten”

ETA BAT-BATEAN ZU eta bat-batean ni  
 eta zapia lurrean  
 “hemen gure zazpi eroria”  
 isiltasunak usaina du Kintoan  
 lur umelarena, lur umilarena  
 ez du adinik denboran  
 “zer garraiatzen duen jakin nahi nuke”  
 Inoiz inon inori lapurtuak  
 garrantzia dute une batean bakarrik.  
 Naturak beti aitzinera darraio  
 ezin diogu segitu, nekeak hiltzen gaitu  
 eta lapurtuak horixe dira azkenerako:  
 inoiz inon inori.  
 “Egun guziz ur desberdin bat  
 desio dauzut:  
 izerdia, malkoa, ihintza,  
 gazia, gozoa, gorria, eguna segun”  
 Kintoan pagoen hostoak  
 honetaz eta hartaz ari dira,  
 Imilitz Ahadin beherantz...  
 hau al da urak daraman “egia”?  
 Ez garela inorenak  
 badoala, ez garela atzoegi  
 badoala, guzia badoala  
 zapela makila kondaira  
 badoala betikoa betirakoa  
 eta gu berekin.  
 Urak eramaten du dena  
 eta horregatik daude  
 erreka azpiko harriak hain garbi  
 hain gorri  
 hain harrigarri

“Barka, sobera fite ari natzauzu, zalantza ene enea dut. Bainan sendi nazazu, ez gira gutti”.

SENTI EZAZU,  
 eta ez, ez saia entenditzen.  
 Arrotza polit dela diotsut  
 baduela basoan ardo basa gorriarik  
 solastatzen dakiela isil  
 atzera kontu zirrargarriak  
 hitz aproposen ttuaz bustitzen.  
 Ene, xarmanta behar du  
 azken hitzik gabeko isiltasunak  
 nondik eta lo egin ezin den  
 gau batetik datorrena.  
 Bai, ederra zara, arrotz  
 ederrak dituzu gau begiak  
 ahotsa lapurtzen ez didazun horietan

Senti ezazu  
 eta ez, ez saia entenditzen  
 behin xoria sartu zitzaidan  
 sukaldeko leihotik  
 —eroa bera,  
 haize hegoak ditu—  
 Zabaldu nion leihoa  
 gehixeago,  
 atera zedin.  
 Holaxe joan zen bizibiluzi  
 hasiberriaren gogoaz  
 holaxe nabil hartatik  
 orain bizirik ezin biluztu  
 orain biluzik leihotik hegan

Senti ezazu,  
 eta ez, ez saia entenditzen  
Atx! Arantza sartu zait  
 behatz puntan.  
 Begira, luzeagoa dut orain,  
 behatz luzeek ba al dakite  
 goxo ukitzen?  
 Harrapatzen bai,  
 biltzen kaiola moduan.  
 Ikus itzazu zureak gatz uretan.  
 Behatz xuriak ez dira kaiolak

hartzen dute, eta utzi,  
eta hartzen utzi  
edo ahora eraman ederra dastatzeko  
arantza ateratzeko

Bila zaitut  
nola ez maita entendimendutik at  
sentitzen zaitudan Urepele

harrapatzean baino bila zaitudanean

## Teilatuan

[...]

- Garai eroak bizi ditugu, bai, bainan eroak gira gu ere. Proiektu eroak ditugulako gira teilatian, eta ez girelako haienak.
- Eta begirada gorri. Horrek salbatuko gattu. Lasai, atzokoa ere pasatu da.
- Berdinetik berdinerara doana izan daiteke ederra ere... lurra lurregia ez bada.
- Zurrunegia. Pisuegia.
- Hori izanen da urak beheiti buruz daraman "egia". Garazirantz, edo beherago.
- Eraun dezala gure izerdiekin batean. Behetti begiratu behar omen da jatera ematen diguna ikusteko. Ardiak egitten duen bezala... bai zera!
- Kabalak ahotik jaten du mundua. Ez, ez gira hain desberdinak.
- Zure taupada aditzen dut, nekatu zara murruan gotti.
- Bai, ozenki ari zaut bihotza. Ez da gutti. Ez gira gutti elizaren teilatian.
- Puntaren puntan biek. Eta hiru kolore paisaian. Hoiek behintzat gureak dire. Edo ez? Ene, zalantza hauek!
- Zalantzak garamatza bilatzerat, ekartzen gitu teilatietarat. Hedatzen gitu, berrasmutzen, mugagabetzen.
- Zientzia eta hitza ez direlako guzia azaltzeko gai. Eskerrak.
- Aunitzez gehiago baita jakin ezin duguna. Begira espazioa. Eskerrak.
- Miauka ari gara orain ere, noraezean.
- Gatuak girelako. Polit sentitzen niz horrela.
- Baita ni ere. Eta badago badakigula ez dakigun hori ere, jakinduria zaharra, intuizioarena.
- Taupadarena.
- Ene, gau ero hauek! Berriz ere harrautuko gattuzte teilatuetan!
- Eta hiru margodun zapi desberdinak hagetan, eta guk izerdia kopetan. Odola ez dugu urdina. Badakigu gurea zoin den.
- Argitzen hasia da, freskatzen, jautsi gaitezen berriz ere lurrera. Kafea hartuko dugu C´Vall-en?
- Ez, ez.. etxean hobe.